

ARAMAIO / 'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimeneko parte hartzea ona ari da izaten

Ekimenaren helburuak dira irakurzaletasuna sustatzea, euskararen erabilera gozagarria bultzatzea, irakurketak suposatzen duen gozamenaren aldarrikapena egitea, herritarra liburutegi publikoen erabiltzaile aktibo bihurtzea eta, bide batez, euskarazko liburuaren ekoizpena eta salmenta areagotzea.

Bada, Olga Jauregi liburuzainak dio haurrak gehiengoa izan arren helduak ere saiakera egiten ari direla euskaraz irakurtzeko: "Euskaraz jakin arren ez daude alfabetatuta eta beraz, asko kostatzen zaie euskaraz irakurtzea. Hala ere, asko badabiltza saiakera egiten". Haur eta helduen artean 50 bat herritar gerturatu direla dio Jauregik. Iaz moduan, parte hartzea ona ari da izaten: "Jendea pozik dago eta aukera aprobetxatzen dabil", dio.

Mikel Axpe irabazle zozketan

Maiatzeko 30 euroko bonoaren zozketa egin zen eta Mikel Axpe izan da irabazlea. Ekimena ekainaren 30era arte luzatuko da eta egun hori baino lehenago egingo dute ekaineko bonoaren zozketa. Parte hartzeko dei egin dute antolatzaileek.